



# ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: TRONBOIA

2024-3-12

## Nori zuzenduak?

**Graduko Tronboi interpretazio** ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten musika **ikasleei** zuzendua.

Sarrera probak 2024-2025 edo 2025-2026 ikasturteetan egingo dituztenen izen-ematea onartuko da. Sarrera proba horietara ikasleak prestatzeko asmoa duten **irakasleentzat** ere irekita egongo da.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2024ko martxoaren 5ean** amaituko da.

Parte-hartzaileak jardunaldira **laguntzaileekin** joatekoak badira, horien kopurua adierazi beharko dute izena emateko formularioan.

## Jardunaldiaren helburua

**Tronboi interpretazio** Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila eta ikasketa horietara sartzeko erreperitorio egokia

## Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia  
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián  
Telefonoa: 00 34 943.023.750  
E-maila: [info@musikene.eus](mailto:info@musikene.eus)  
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

## Jardunaldiaren egitura

**REAL, Juan**

Vicente Boix eta José Manuel Sánchez irakasleek ere parte hartuko dute

**10:00** Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene** eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua egingo zaio.

**11:00** Beroketa eta teknika eskola kolektiboa

**12:00** Musikeneren ikasleen entzunaldi-eskola José Manuel Sánchez pianistarekin

**15:00-18:00** Izena eman duten ikasle aktiboekin eskolak

**18:30-19:30** Musikeneren Metal Ensemblearen entzunaldia Luis Gimeno irakasleak zuzendua

**Tronboi** jardunaldiari buruzko informazio akademiko espezifiko gehiago jasotzeko jarri harremanetan Urko Arozena Haize eta Perkusio Departamentuko buruarekin:  
[dpto.vientopercusion@musikene.net](mailto:dpto.vientopercusion@musikene.net)